



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

ARETO FUTBOLEKO EUSKAL BATZORDEA

2007/08 DENBORALDIA

15. ZIRKULARRA

LEHENENGO NAZIONAL B MAILAKO ORDUTEGIAK

Federazioak partiduak koordinatzeko helburuarekin Batzorde honek beharrezkotzat jotzen du ondorengo arauak egitea. Derrigorrez bete behar dira, eta gure Klubek irakurri beharko dituzte:

1. Partiduak jokatzeko eguna, ordutegia eta jokalekua partiduaren aurreko asteko ostiralaren 19:00ak baino lehen jakin beharko du Batzorde honek.

ARETO FUTBOLEKO EUSKAL BATZORDE honi jakinarazpenak egiteko ondorengo zenbakiak dituzue eskura: **Telefonoa: 944 731 900; Faxa: 944 732 221.**, edo helbide elektronikoa: **webmaster@eff-fvf.org**

Partiduaren aurreko asteazkenaren 22:00ak baino lehen jakinaraziko zaizkio aurkako taldeari partiduaren data, ordutegia eta jokalekua.

2. Partiduak hasteko ordutegiak:

Larunbata: 16.00 - 20.00 ord.
Igandea: 10,00 -13,00 eta 16.00 – 18.00 Ord.

3. Klub guztiei jakinarazten zaie eskumena dutela aurreko puntuan ezarritako partiduen ordutegi ofiziala aldatzeko; betiere aurkako taldea ere ados badago, eta idatziz jakinarazten badute partiduaren aurreko asteko ostiralaren 19:30ak baino lehen. Aldaketa jasotzen duen dokumentuak klub bakoitzaren zigilua eta sinadura izan beharko ditu.

Aldaketa horrek eragozpenak sortzen dituenez arbitroengan, zelaiaren jabeak diren klubek 12 € gehiago ordaindu beharko diote aipatutako arbitro bakoitzari.

4. Azken jardunaldiko partiduak egutegian finkatutako larunbateko 18:30ean hasiko dira guztiak, emaitzak azken sailkapenean eragina badu.

Guztiek ezagutzeko eta dagozkion xedeetarako jakinarazten da.

2007 irailak 19, Bilbao


JON ANDER GAMBOA AGUIRRE
Secretario General